

8.7 UDALEKU IREKIAK

Espediente kodea:

Zer da? Zertarako da?

Haurrentzako udaleku programa bat da, Hernaniko Udalak antolatua. Hernaniko herrian errolatuta dauden edota herriko ikastetxeetan ikasten duten 3 eta 10 urte bitarteko haurrentzat da (HH1 eta LH 4 mailakoentzat).

Udaleku hauen helburua da hurrekin eta haurrentzat aisialdi hezitzailea eta erakargarria eskaintzea, euskararen erabilera eta genero parekidetasuna ardatz dituen programazio baten bidez.

Noiz? Uztailean. Data zehatzak urtero jakinaraziko dira.

Ordutegia: astelehenetik-ostiralera 9:30-13:00

Nork eska dezake?

Haurren guraso edo tutoreek.

Aurkeztu beharreko agiriak

- [Izena emateko orria](#) behar den bezala beteta.
- [Onura fiskalen eskaera-orria](#) (onura eskatu nahi bada)

Izena emateko epea

Urtero zehaztuko da.

Izena emateko orria non aurkeztu

Herrian ikasten dutenek: Ikastetxean entregatu behar dute izena emateko orria.

Herrikan kanpo ikasten dutenek:

Aurrez aurre: hhz-Herrikanen Harrera Zerbitzuan (udaletxe beheko solairuan). Astelehenetik ostiralera 08:00-19:00.

Internet bidez: www.hernani.eus helbidean, Herrian bizi-Tramiteak atalean, informazioa jaso dezakezu, izena emateko orria bete eta e-postaz bidali gazteria@hernani.eus helbidera.

Zenbat kostatzen da?

Prezio arrunta urtero zehazten da (100€ inguru). Hobariak daude.

Matrikularen kobraketa ekainean egiten da, izena emateko orrian jarritako kontu korrontetik.

Onarpena

Epe barruan aurkeztutako eskaera guztiak onartzen dira.

Itxaron zerrenda

Epez kanpo izena emandakoekin itxaron zerrenda osatuko da.

Baja ematea

Haurrak udalekuetatik baja eman nahi izanez gero Haur eta Gazteria Arloarekin jarri behar da harremanetan. Telefonoz: 943337004 edo e-postaz: gazteria@hernani.eus.

Maiatzaren azken lanegunera bitartean adierazitako baja kasuetan ez da matrikula kobratuko. Ekainaren lehenengo lanegunetik gurasoentzako bilera informatzaileak egin arte adierazitako bajen kasuan, %10 kobratuko da. Bileren ondoren egiten diren baja eskaeren kasuetan, matrikula osoa kobratuko da.



Hobariak

Hobaria eskatu nahi bada Euskara Zerbitzuarekin jarri behar da harremanetan. Telefonoz: 943337029 edo e-postaz: euskara@hernani.eus

Informazio, taldeak eta programazioa

Udalekuak hasi aurretik gurasoekin bilerak antolatzen dira, udalekuen inguruko informazio, programazio, talde eta gainerako xehetasunen berri emateko. Gutun bidez jasotzen da bilera horren berri (ikastetxeen bidez zabaltzen da gutuna eta, kanpoko ikastetxeetan dabiltzanei, postaz etxera bidaltzen zaie).

Tramitzatzeko ardura duen udal saila

Haur, Nerabe eta Gazteria arloa. Hernaniko Udala , Gudarien Plaza 1, 1 solairua.

Informazio gehiago: 943 575435/943 337004

Telegram 605715607 e-postaz: gazteria@hernani.eus

HERNANIKO UDALA, hhz-Herriarren Harrera Zerbitzua
Gudarien plaza 1 - 20120 | TEL. 943 337 000 - FAXA 943 552 696
e-posta: hhz@hernani.eus | www.hernani.eus



Hernaniko
Udala



EUSKAL
HERRIA